

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNA SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Beherago zehaztutako instalazio elektrikoari buruzko administrazio-baimena, egikaritze-proiektua onartzea eta ingurumen-eraginari buruzko deklarazioa eskatzeko espedienteak jendaurrean jartzeko dena: Aurrefabrikatutako eraikin itxura duen «Regazubi» izeneko ebaketa-zentroa eta bere 30 kV-ko lurpeko lineak, Alegria-Dulantziko udal-barrutian (Araba)

Abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuko 10. artikuluan (2002-12-23ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan (2000ko abenduaren 27ko BOE) zehaztutako ondorioetarako, eta testu horretako azken xedapenatarik lehenengoan, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduaren 17. artikuluan eta Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, jendaurrean jartzen dira Iberdrola Distribución Eléctrica SAUk egindako eskabidea eta enpresak desjabetu beharrekotzat jotzen dituen ondasun edo eskubideen zerrenda banakatu eta zehatza.

Erreferentzia: 18247 (18263 eta 18265).

Espedienteak: 01-AT-D-2017-00006 (AT-H-2017-9 eta AT-D-2017-11).

– Kokalekua: Alegria-Dulantzi (Araba).

– Aurrekontua: 64.997,72 euro.

– Xedea: zonaldean energia elektrikoaren horniketaren kalitatea hobetzea.

Ezaugarri nagusiak:

Aireko-lurpeko linea berria:

– Zerbitzuko tentsioa: 30 kV.

– Zirkuitu-kopurua: 1.

– Eroale-kopurua: 3.

Gamarra-Altsasu ITELL-ko 1285. euskarritik Regazubi EZ-rako zatia:

– Eroale-motak: HEPRZ1 12/20 kV 240 mm² Al.

– Luzera: 35 m.

– Jatorria: Gamarra-Altsasu ITELL-ko 1285. euskarria.

– Amaiera: Regazubi EZ-an.

Gamarra-Altsasu IITELL-ko 1285. euskarritik Regazubi EZ-rako zatia:

– Eroale-motak: HEPRZ1 12/20 kV 240 mm² Al.

– Luzera: 35 m.

– Jatorria: Gamarra-Altsasu IITELL-ko 1285. euskarria.

– Amaiera: Regazubi EZ-an.

Regazubi EZ-ko euskarritik Arganzubi EB-rako zatia:

– Eroale-motak: HEPRZ1 18/30 kV 240 mm² Al eta DHZ1.

– Luzera: 10 m berri, guztira 90 m izanik (erref.: 17022).

– Jatorria: Regazubi EZ-an.

– Amaiera: Arganzubi EZ-an.

Zentro berria:

– Mota: aurrefabrikatua.

Gelaxkak:

– Zenbakia: 6 (5L+P).

– Mota: 36 kV SF6.

Administrazio-baimena, egikaritze-proiektuaren onarpena eta, zehazki, ingurumen-eraginari buruzko deklarazioa eskatzen dira.

Eta hori guztia argitara ematen da, batetik, lurralde-ordezkaritza honetan proiektua aztertu dadin (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz), eta, bestetik, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrerako hogeit eguneko epearen barruan erreklamazioak (bi ale) aurkeztu daitezzen.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 15a

Lurralde-ordezkaria

SABIN ZUGADI BARRÓN

ERANSKINA/ANEXO

Ereginpeko/abeen zerrenda/Relación propietarios afectados
 «REGAZUBI» izeneko ebaketa-zentroa eta Bere 30 kV-ko lurpeko elikadura-lineak, Alegria-Dulantzi Udal-Barrutian (Araba)
 Centro de seccionamiento denominado "Regazubi" y sus líneas subterráneas de alimentación a 30 kV en el término municipal de Alegria-Dulantzi (Álava)

Udalerrria/Municipio	Finka/F Inca	Poligonoa/ Poligono	Partzelak/ Parcela	Titularra/Titular	Kanalizazioaren eta dorreaken okupazioa/ Ocupación canalización y torre (m ²)	TZaren + perimetroko espaloaren okupazioa/Ocupación CT + acera perimetral (m ²)	Euskarri zenbakial Apoyo número	Azalerak, guztira/ Superficie total (m ²)	Izaera/ Naturaleza
Alegria-Dulantzi	1	1	54	Alavesa de Patatas, SA	16,28	32,79	1285	49,07	Hirikoa/Urbano